

## EUSKAL ATLASA DELA ETA

*Bilbo, 1983-VII-29*

*José M.<sup>a</sup> Etxebarria (\*)*

### 1. Markiñako bilera euskalkiei buruz:

Zati bitan banatu ahal da eginbeharra:

#### 1.1. Herriari eta kanpokoei begira.

Onartzen badira, arlo honetarako egokiak izango lirateke gai hauek:

##### a) Gonzalez Etxegarai jaunaren txostena:

Euskalkien bilketan eta azterketan egin diren lanen berri laburra eman:

– L. L. Bonaparteren bilketa

– Vienan dago beste bilketa bat

– Erizkizundi irukoitza

– Gaurko saio eta asmoak.

– Gaurko saio hauetan nola parte har dezaketen herrietan lekukoak bilatzen eta erraztasunak emanez.

##### b) Zati hau txosten baten bidez edo mahai inguru baten bidez adierazi daiteke:

1.2. Atlaserako pauso batzuk emateko nola eratu gauzak, nori laguntza eskatu, nolako bideak urratu.

Nere esperientzi kaxkarretik eta beste atzerriko toki batzuetan egin dituzten gauzak gogoan izanik ohar txiki batzuk jarriko nituzkee nik.

1.2.1. Euskalherria txikia da eta denpora garrantzitsuagoa da, dirua baino. Ez da diru asko behar lan honetarako, baina bai denpora asko. Eta lan honetarako aukeratzen direnei denpora esan behar zaie, hau da, honetan bakarrik lan egin dezatela.

### 2. Pertsona egokiak, izenari baino izanari gehiago begiratu.

---

(\*) Txostentxo hau, egilearen etorri ezinarengatik, Juan San Martin, *Jagon* Sailburuak irakurri du.

3. Unibertsitatean daudenak handik ateratzea lan honetan jarduteko oso zaila da, unibertsitateak duen egoera ikusiz eta ezagutuz. Orduan beste sistema bat asuatu-ko balitz onena hori izango litzateke.

4. Herriak, grabaketak egiteko, aukeratuta daude, baten batzuk izan ezik. Itaunketa edo galdeketa prestatu behar da. Horretarako batzuk beste danak utzita ekin behar diote.

5. Nolako baldintzak jarri lan honetan parte hartu nahi dutenentzat ez zait tokatzen niri. Dana dala gure aurretik egin dute zer bait, adibidez Finlandian, Suedian etabar, eta haiek erabili zituzten metodo batzuk guretzat ere mesedegarriak diralakoan nago.

6. Nork hartu kolaboratzaileak, nork ordaindu, nola tabar hori erakunde baten edo besteren eskuetan gelditzen da.

7. Honelako lan bat ezin daiteke egin asteburuetan edo astegoienetan. Herri bakoitzean itaunketa osoa betetzeko aste bete gutxienez behar da, eta hori saiatua izan da. Orduan dato hau ere kontuan hartu beharrezkoa da.

\* \* \*

Gai hauek, denak eta beste batzu Dialektologi batzordeko eta beste euskaltzaindiko batzuren artean garbitzekoak lirateke. Eta Euskaltzaindiak baldin badu asmorik erakunde berak eraikitzeko lan honetarako hori egokia izango litzateke, burukraziak beste tokietan jartzen dituen, trabak baztertuko genituzkelako.

Nik besterik ez daukat. Agur eta Irailera arte.